

ALKATE DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arreguik, Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengo agintzea erabaki dut:

Oñatiko Udalaren 2024ko Aurrekontuaren Likidazioa (2025ZALK0061)

Udal Kontu-hartzailearen txostenaren laburpenak zera dio:

2024 EKITALDIKO AURREKONTU LIKIDAZIOARI BURUZKO

KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENA

21/2003 F.A.-ren 49.artikuluaren 3. lerroakadak dioenari jarraiki, Kontu-hartzaile honek ondorengo txostena luzatzen du:

0.- Lege ebaluazioa eta barne kontrola

0-1.- Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko ebaluazioa

Kontuan izanik, 2/2012 Legeak xedatzen duena printzipio orokor (3. art. eta ondorengoak), egonkortasun printzipioaren gauzapen (11. art.), gastu erregela (12. art.) eta zor publikoaren helburuei buruz,

Kontuan izanik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru berezitasunei buruzko 13/2014 Foru Arauak xedatzen duena,

Kontuan izanik, 1/2013 Foru Arauak xedatzen duena,

2024ko Aurrekontuaren Likidazioari erantsi zaio Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko ebaluazioa.

0-2.- Kontu-hartzailetzako barne-kontrolaren urteko txostena: Funtzio ikuskatzailea (mugatua eta lagina), finantza eta ikuskaritza kontrola eta efikazia kontrola

32/2019 Foru Dekretuak, GLHko Toki Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duenak, 3.art. 1 atalean dio, barne kontrola egingo dela eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez.

3 art. 4.atalean dio, kontrol finantzarioak bi modalitate dituela, kontrol iraunkorra eta auditoretza publikoa.

29.art 2-a) atalean dio kontrol finantzarioko urteko plana egin behar dela eta bertan sartuko dela obligazio eta gastuak osorik fiskalizatzeko jarduketak (13 art. 4.atala).

Foru Dekretu beraren 35. Artikuluan aipatzen dira jarduketa horietako bakoitzaren idatzizko txostenak, eta 37 eta 38.artikuluetan Txosten Laburbiltzaile eta Ekintza Planak.

Dokumentu guzti horiek Osoko Bilkurari jakinarazi behar zaizkio berariazko gai modura.

1.- Aurrekontuaren Likidazioa

1-a.- Datu orokorrak

Likidatutako sarrerak 22.149.284,63 eurokoak izan dira, 2023an baino 2.429 mila euro gutxiago (% -9,88) eta onartutako gastuak 21.681.685,38 eurokoak, 2023an baino 648 mila euro gutxiago (% -2,90).

Ekitaldiz ekitaldi, egonkorrak direnak sarrera arruntak eta gastu arruntak dira eta hauexek txostenean zehar bereziki aztertuko ditugu. Oraingoz esan, sarrera arruntak 21.461.292,54 eurokoak izan direla, 2023 urtean baino 459 mila euro gehiago (% 2,18). Onartutako gastu arruntaren eta amortizazioen batura berriz, 18.473.234,36 eurotara iritsi dira, 2023 urtean baino 751 mila euro gehiago (% 4,24).

4.- Laburpena, balorazioa eta etorkizunerako ikuspegia

4-a.- Laburpena

4-a-1.- Aurrekontu Orokorrenaren Likidazioa:

1.- 2023-2024 Likidazioak konparatuz, **sarreraren guztirakoa jaitsi da** (-2.429 mila euro, %-9,88), batez ere, Next Generation funtsen eraginez.

Gastuen guztirakoa jaitsi da (-648 mila euro, % -2,90), batez ere, inbertsioen eraginagatik.

2.- Sarreraren gauzatze-maila doitua % 105,68 da eta burutze(kobranta)-maila % 93,96; 164 mila euro zalantza zorduntzat jo dira; iazkoaren antzera gauzatu eta burutu da.

3.- Gastuen gauzatze-maila % 76,51 da eta ordainketa maila % 93,04; iaz baino gutxiago gauzatu da, eta antzera burutu.

4.- **Zorpetze-maila % 4,87** da, Gipuzkoako udalekin eta antzerako udalekin konparatuz, batez bestekoaren gainetik dago. (Gipuzkoa, %3,4; antzekoak, %2,0 -Udalgidako web orria- 2024ko ekitaldia).

5.- **Zor bizia 794 mila € jaitsi da.** Urte amaierako zor-bizia 7,1 milioi eurokoa da.

6.- **Biztanleko inbertsio garbia lotutako finantzaketa gabeak 215,13 eurokoa da.**

4-a-2.- Aurrekontu arruntaren Likidazioa:

1.- **Aurrezki garbia 292 mila euro jaitsi da** 2.988.058,16 euroraino (iaz 3.280 mila euro); zenbateko hau likidaturiko sarrera arruntaren % **13,93 da** (iaz, %15,62).

2.- Balio erlatiboetan, **sarrera arruntak igo egin dira (% 2,18); gastu arrunta+amortizazioak ere bai (% 4,24).** Interes eta amortizazioaren eragina kenduz gero, **gastu arrunt ez finantzarioak (soldatak, erosketak eta kontratuak eta dirulaguntzak) ere igo egin dira (% 4,54).**

4-b.- Balorazioa eta etorkizunerako ikuspegia

2008ko udazken aldera, garbi zegoen finantza-krisi sakon bati aurre egin behar zitzaiola: Foru Ogasuneko datuak okertu ziren; 2009 urterako aurreikusi zitezkeen obra pribatu nagusiak bertan behera gelditzen ziren; finantza erakundeek kreditu eskaintza gutxitu eta garestitu zuten. 2008ko ekitaldiak krisia jasan beharko zuen noski, baina okerreana etortzeko zegoela aurreikusten zen eta hala gertatu da.

Egoera honen aurrean, zenbait neurri hartu zituen Oñatiko Udala 2008ko amaieratik aurrera:

- Foru Fondoaren diru-sarreraren 2008ko aurreikuspena eguneratu zen, defizit handi baten esperoan
- 2008ko gastuak murriztu ziren zertxobait.

- 2009ko Aurrekontuan sarrerak eta gastuak eguneratu ziren eta inbertsioen epealdiak luzatu ziren. Hala ere, aurrezki arrunta ia 0 zen.
- 2009ko hasieran, Oñatiko Udalak Austeritate plan bat prestatu zuen, helburu nagusia zera izanik, 2009 amaieran aurrezki arrunta zenbateko egoki batera igotzea eta aurrerantzean mantentzea.
- 2011ko maiatzean hauteskundeak izan ziren eta gobernu aldaketak proiektu aldaketa ekarri zuen; Udalaren funtzionamendua aldatzeko eredu berri bat abiatu nahi zen (Saratxaga, Herrijorran...), baina beti ere, austeritateari eutsiz.
- 2008ko BPG ez zen berreskuratu 2016ra arte, eta foru funtsa, berriz, 2014ra arte.

2020ko Aurrekontuaren Likidazioan Pandemiaren eragina nabarmena izan zen, EAEko BPG %9 murriztuz (gera garaitik murrizketa handiena). Gainera, Oñatiko Udala azken hamarkadako obrarik handiena egiten ari zen garaian etorri zen pandemia hori, zorpetze-bizi handiena zuen garaian, eta 2019ko maiatzeko hauteskundeetatik ateratako gobernu-talde aldaketarekin. 2021ean berreskuratu ziren 2019ko datu ekonomikoak, udal kontuei dagokienez.

Azkenik aipatu behar da, sektore elektrikoaren finantzazioa estatuaren politika-ekonomikoaren arabera dagoela; oso aldakorra da eta Oñatiko Udalarengan eragin oso handia du (Oñargi eta Ur Jauziak).

Zuhurtasuna ezinbestekoa izango da datozen urteotan; gakoa **AURREZKI ARRUNT POSITIBOA mantentzea** da; orain arte lortu da.

Horregatik guztiagatik, Kontu-hartzailearen balorazioa eta proposamena ikusirik, nik, Iزار Elorza Arreguik, Oñatiko Alkatea naizen honek, erabakitzen dut:

Lehenengoa. - Udal honen 2024(e)ko Aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINZAKO GERA KINA EGOERA

DIRUZAINZAKO GERA KINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2024-12-31n:	10.204.110,41
2.- Kibratu gabeko saldoak, 2024-12-31n:	1.559.255,86
Aurrekontuko zordunak :	1.545.631,12
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	13.624,74
- Aplikatu gabeko kibrantzak:	0,00
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2024-12-31n:	2.647.628,43

Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	1.508.522,66
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	1.139.105,77
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2-3):	9.115.737,84
5.- Saldo kobragaitzak:	164.397,65
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:	2.006.649,07
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):	6.944.691,12

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo Aurrekontuko eragiketen emaitza:	467.599,25
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako Aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-40.996,96
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	2.443.794,18
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	151.569,43
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	3.021.965,90

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	1.582.215,20
--	--------------

O Ñ A T I K O U D A L A

2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	2.327.168,70
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	3.909.383,90


Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut.

Oñatin, 2025eko martxoaren 10a

Alkatea



O Ñ A T I K O U D A L A

Izaro Elorza Arregui